

XEDAPEN OROKORRAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

5322

229/2012 DEKRETUA, urriaren 30ekoa, industria-instalazioak abian jartzeko prozedura errazteko dena.

Agindu honen helburua da industria-segurtasunaren arloan Industria Administrazioaren esku-hartze irizpideak zehaztea, eta industria-instalazioak abian jartzeko izapideak barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentarauak (Zerbitzuen Zuzentaria izena du) garatzen duen araudi berrira egokitzea.

2009ko abenduaren 25ean, honako lege hauek jarri ziren indarrean: Zerbitzuetako jardueretarako sarbide libreari eta horiek gauzatzeari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legea (2006/123/EE Zuzentaria Espainiako ordenamendu juridikora aldatzen duena), eta Zerbitzuetako jardueretarako sarbide libreari eta horiek gauzatzeari buruzko legea egokitzeko zenbait lege aldatzen dituen abenduaren 22ko 25/2009 Legea.

Azaroaren 23ko 17/2009 Legeak sendotu egiten ditu zerbitzuak kokatzeari eta aske emateari buruzko oinarrizko askatasunekin bateragarriak diren printzipio arautzaileak, eta,aldi berean, aukera ematen du oztopoak ezabatzeko eta zerbitzuetako jardueretarako sarbidean eta horiek gauzatzeko eragozpenak murrizteko. Bere aldetik, abenduaren 22ko 25/2009 Legeak adierazitako zuzentariaren eraginpean dauden indarreko legeak aldatzen ditu berariaz, eta horien artean dago Industriaren uztailaren 16ko 21/1992 Legea.

Apirilaren 23ko 7/2012 Legeren bitartez, berrikitan aldatu da Euskal Autonomia Erkidegoko Industriaren 8/2004 Legea. Izan ere, lege harekin zenbait lege aldatzen dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 12ko barne-merkatuko zerbitzuei buruzko 2006/123EE Zuzentariari egokitzeko. Eta 7/2012 Legeak erregulatu egiten ditu, batetik, industria-instalazioen funtzionamendu-araubidearen hirugarren kapitulua, eta, bestetik, instalazioon gainean Industria Administrazioak esku-hartzeko duen ahalmena. Ildo horretan, industria-instalazioei aplikatzeko arautegia eta erregelamendua egoki betetzen direla bermatzeko tresna egokiak ezartzen ditu, betiere industria-segurtasunaren arloan gorabeherak eta istripuak ekiditeko helburuarekin.

Dekretu honek industria-segurtasuneko kontrol-sistemako tresnak garatzen ditu, batik bat auditoretzak, kontrol teknikoa, eta industria-ikuskaritza. Horiei gehitu behar zaie alde aurreko dokumentazio-kontrola, hain zuzen ere baimenik behar ez duten industria-instalazioak abiarazteko nahikoa izango delako ezarritako dokumentazioa organo eskudunean aurkeztea. Hortaz, ezinbestekoa da arreta berezia jartzea dokumentazioko akatsak nahiz akats teknikoak atzematean eta konpontzean. Hori guztia, helburu nagusi gisa hartuta instalazioen segurtasuna.

Ezinbestekoa da industria-arloko euskal araudia adierazitako lege-aldaketetara egokitzea. Kasu honetan, arau horren helburua da industria-instalazioak abiarazteko prozedura neurri handiagoan dinamizatzea, lehiakortasuna handitzearen; hori guztia, beharrezkoak ez diren baldintzak edo oztopoak, neurritz kanpokoak edo diskriminatzaileak guztiz ezabatuta.

Instalazio industrialak martxan jartzeko prozedura sinplifikatzen zuen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2000ko abenduaren 26ko aurreko Agindua urrats garrantzitsua izan

zen Euskal Autonomia Erkidegoko Industriari buruzko uztailaren 16ko 21/1992 Legean jasotako gutxieneko esku-hartzearen eta liberalizazio industrialaren printzipioak aplikatzeko prozesuan. Agindu horren bitartez, Industria Segurtaguneko araudiaren mende jarritako instalazio eta produktu bakoitzaren Administrazioaren zuzeneko kontrola aldatu zen, eta sistemaren funtzionamendu egokia bermatuko zuen kontrol orokorra bat ezarri zen.

Xedapen honek Euskal Autonomia Erkidegoko Industriako azaroaren 12ko 8/2004 Legearen 9. artikuluko 2. paragrafoan xedaturikoan sakontzen du; hau da, industria-instalazioen abiarazteko baldintza bakar gisa ezartzen du araubidez ezarritako segurtasun teknikoko baldintzak eta betekizunak betetzen direla dokumentu bidez egiaztatzea. Horrela, prozedura bateratzen da, sektoreko Araudi aplikagarrietan zehazten denarekin bat etorritik. Hortaz, alde aurreko «abiarazteko dokumentu» bat lortzeko baldintza ezabatzen du, baita enpresa hornitzaileen edo banatzaileen behin betiko hornidurak baldintzatzen zuen 15 eguneko isiltasun positiboa ere.

Espero den emaitza da industria-instalazioak abiarazteari buruzko araudia eraginkorragoa, gardenagoa eta sinplifikatuagoa izatea; era berean, horren bitartez, jarduera ekonomikoa sustatzea lortuz.

Ondorioz, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorritik, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko urriaren 30ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea eta aplikazio-eremua.

1.– Dekretu honen helburua da industria-segurtasunaren eremuan esku hartzeko irizpideak zehaztea, baita instalazioak, ekipoak, aparatuak edo produktuak, aurrerantzean, industria-instalazioak abiarazteko prozedura erraztea ere.

2.– Arau honetan bildutako xedapenak industria-segurtasuneko araudiaren eraginpeko industria-instalazio guztiei aplikatuko zaizkie, horien kokapena edozein delarik ere (etxebizitzak, merkataritza-lokalak, jendarteko lokalak, industria-establezimenduak, eta abar).

2. artikulua.– Administrazioaren baimena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Industriaren azaroaren 12ko 8/2004 Legearen 9. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, honako hauek bakarrik izango dute administrazioaren baimena:

a) Indarreko legediaren arabera, funtzionamendurako administrazioaren baimena behar duten industria-instalazioek.

b) Salbuespen gisa administrazioaren baimena jaso ahal izango dute diseinu, helmuga, koka-leku, kokapen edo justifikatutako beste edozein arrazoiengatik indarreko preskripzio teknikoak betetzen ez dituzten industria-instalazioek; betiere, interesdunak alde aurretik egiaztatu beharko du segurtasun-maila baliokideak eskaintzen dituzten neurriak hartu dituela edo bestelako baldintza alternatiboak ezarri dituela.

3. artikulua.– Abiaraztea.

Aurreko artikuluan aurreikusitako kasuetatik kanpo, eta 10.3 artikuluan xedaturikoaz kanpo, industria-instalazioak abiarazteko nahikoa izango da dekretu honen 11. artikuluan ezarritako dokumentazioa Industria-arloko lurralde-organo eskudunari aurkeztea. Artikulu horretan ezinbestekotzat jotzen diren agiriren bat falta bada, ezinezkoa izango da instalazioa abiaraztea.

4. artikulua.– Administrazio-kontrola.

Industria Administrazioak, bere zerbitzu-teknikoen bitartez, edo eragile laguntzaileen zerbitzuak erabiliz, industria-segurtasuneko xedapenen betearazpena egiaztatu ahal izango du edozein unetan, ofizioz edo alderdi interesdunak eskatuta.

5. artikulua.– Eragile laguntzaileak.

1.– Eragile laguntzailetzat hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Industriako 8/2004 Legearen 14. artikuluan ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten pertsona fisiko edo juridiko guztiak.

2.– Industria Administrazioaren eskumenen esparruan jarduten dutenean, eragile laguntzaile horietako edonork emandako edo egindako egiaztagirien, ikuskapen- edo kontrol-akten edo bestelako egintzen aurka erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira Industria-arloko lurralde-organo eskuduneari. Erreklamazio horien ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango da, indarreko legedian aurreikusitakoari jarraikiz.

II. KAPITULUA

INDUSTRIA ADMINISTRAZIOAREN ESKU-HARTZEA

6. artikulua.– Industria Administrazioaren esku-hartze faseak.

1.– Dekretu honen ondorioetarako, Industria Administrazioaren esku-hartzearen faseak honako hauek izango dira:

a) Kontrol formala. Aurkezterakoan aztertuko da dokumentazioa, eta araubidez eskatzen den dokumentazioa dela eta formalki ezarritako baldintzak biltzen dituela egiaztatuko da.

b) Kontrol teknikoa. Zerbitzu Teknikoek araubidez ezarritako dokumentazioa berrikusiko dute, eta dokumentazio horrek aplikatu dakizkikeen Araubideetan ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatuko dute. Hala badagokio, adierazitako kontrolak horren mendeko industria-instalazioak ikuskatzea ekar dezake.

c) Auditoretza. Industria-segurtasunari dagokionez, esku-hartzen duten eragile laguntzaileen gaineko eta Industria-instalazioen gaineko kontrol sistematiko planifikatua izango prozedura.

Auditoretzak bi motatakoak izan daitezke:

– Industria-instalazioak eta eragile laguntzaileak arautzen dituzten arauko baldintza guztien kontrol orokorrerako auditoretzak.

– Industria-instalazioak eta eragile laguntzaileak arautzen dituzten arauko baldintza baten edo batzuen kontrol espezifikorako auditoretzak.

Bi kasuetan, ikuskatu beharreko industria-instalazioak edo eragile laguntzaileak laginketaz hautatuko dira.

2.– Era berean, Industria Administrazioak honako kasu hauetan esku hartu beharko du:

a) Arauzko ikuskapenak. Adierazitako esku-hartzea nahitaez eta derrigorrez aurreikusten duen arau bat dagoenean.

b) Salaketa baten ondoriozko ikuskapenak. Industria-araudiaren mendeko instalazio baten egikaritzeari edo funtzionamenduari lotutako salaketa bat dagoen kasu guztietan, betiere arrazoituztat jotzen bada, eta argitzeko ikuskapen bat egitea ezinbestekoa bada.

c) Istripu baten ondoriozko ikuskapenak. Industria-araudiaren mendeko instalazio baten egikaritze- edo funtzionamendu-prozesutik zuzenean ondorioztatutako istripu baten kasuan, dagokion ikuskapena egingo da, betiere beharrezkoa bada gertatu dena argitzeko edo erantzukizunak zehazteko, baita lankidetzak eskatzen dituzten ereduak betetzeko ere.

7. artikulua.– Kontrol Teknikoa.

1.– Industria-segurtasunaren arloko zuzendaritza eskudunak ezarriko ditu Industria-arloko lurralde organo eskudunen zerbitzu teknikoaren jarduteko irizpideak. Eta horiek ezarriko dituzte aurkeztutako dokumentazio teknikoaren berrikuspenaren irismena eta edukia, baita laginketa bidez egin beharreko ikuskapenena ere. Irizpide horiek lehentasunez hartu beharko dituzte kontuan arrisku potentzial handiagoa duten industria-instalazioak.

2.– Eskumendun zuzendaritzak ezarritako irizpideen arabera laginketa bidez egin beharreko ikuskapenez gain, industria-instalazioen ikuskapenak egingo dira, horiei buruz aurkeztutako dokumentazioaren berrikuspenaren honako kasu hauetako bat atzematen denean:

a) Dokumentazio teknikoak ez ditu betetzen industria-instalazioaren segurtasunean eragina duten arauko baldintza teknikoak.

b) Dokumentazio teknikoari araubide tekniko aplikagarriaren arabera funtsezkotzat jotzen den dokumenturen bat falta zaio.

c) Funtsezkotzat hartutako aurkeztutako dokumentu teknikoetako batek ez dauka datu tekniko garrantzitsurik; industria-instalazioaren egikaritzearekin lotutako konponbideak nahasiak dira; edo horien idazkuntzatik arauko ez-betetzeak edo zailtasun teknikoa ondoriozta daitezke egikaritzeari dagokionez. Irizpide hori kontuan hartuko da, bereziki, erabilera publikoko industria-instalazio bat denean edo lokal publiko batean kokatua dagoenean.

d) Dokumentazio teknikoak, araubide tekniko aplikagarria bete gabe, neurri zuzentzaile bitxiak proposatzen ditu.

e) Industria-instalazioa berritzailea da bere diseinu teknikoari dagokionez, eta konplexutasun tekniko handiagoa ekar dezake egikaritzean.

f) Zirkunstantzia bereziak pilatzea, frogatzeko modukoak, instalazioen edo enpresa instalatzailearen titularra tartean izanik.

8. artikulua.– Auditoretza.

Urtero, eskumenduko Zuzendaritzak egin beharreko auditoretza-programa espezifiko ezarriko du, Euskal Autonomia Erkidegoko Industriako azaroaren 12ko 8/2004 Legearen 13.1 artikuluan bildutako irizpideak aplikatuz.

Programa hori lurralde-organoen eskudunek gauzatuko dute.

9. artikulua.– Ikuskatze-aktak.

Industria-administrazioaren aurreko esku-hartze eta kontroletan oinarrituta, industria administrazioaren Zerbitzu Teknikoek egiten dituzten ikuskatze-bisitei buruz, dagokion akta egingo da.

Aktetan, gutxienez, honako datu hauek jaso beharko dira:

a) Industria-instalazioaren pertsona titularren edo, hala badagokio, erabiltzailearen identifikazioa.

b) Industria-instalazioaren identifikazioa.

c) Eragile laguntzaileen identifikazioa, hala badagokio.

d) Egiatzatutako gertakarien deskribapena.

e) Ikuskapena ikusten dutenen identifikazioa eta nola jarduten duten.

f) Jarduneko ikuskatzaileak kautelazko neurriak ezartzen baditu, hartutako kautelazko neurria edo neurriak adieraziko ditu, baita horien arrazoi eta helburu zehatzak ere.

g) Pertsona interesdunek aurkezten dituzten alegazioak. Bisita egiten denean ez bada alegaziorik egiten, eta pertsona interesdunak hala eskatzen badu, administrazioak epe bat emango dio pertsona interesdunari, hain justu ere ikuskapenean egiaztatu eta aktan jasotako gertaerei dagokienez egoki irizten dien kontsideraziak aurkez ditzan.

III. KAPITULUA

INDUSTRIA INSTALAZIOAK ABIARAZTEKO PROZEDURA

10. artikulua.– Aplikazio-eremua.

1.– Prozedura hori, indarreko legediaren arabera, alde aurreko administrazio-baimenik behar ez duten industria-instalazioei aplikatuko zaie, eta industria-instalazio berriak nahiz jada existitzen direnen aldaketak, zabalkuntzak edo bajak hartuko ditu eraginpean.

2.– Kapitulu honetan bildutako xedapenak mota guztietako industria-instalazioei aplikatuko zaizkie, alde batera utzita, araubide tekniko aplikagarriaren arabera, proiektu teknikoa edo beste edozein dokumentu tekniko aurkezteko eskatzen den ala ez.

3.– Prozedura hori ez zaie aplikatuko honako hauei: abiaraztea izapidetzea energia hornitzen duen enpresaren edo enpresa banatzailearen aurrean egitea aurreikusten duen araudi espezifikoa duten industria-instalazioei.

11. artikulua.– Dokumentazioa aurkeztea.

1.– Proiektua eskatzen duten industria-instalazioen kasuan, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da industria-arloko lurralde-organo eskudunear:

a) Abiaraztearen jakinarazpena, dekretu honen eranskinean ezarritako ereduari jarraiki.

b) Teknikari eskudunak sinatutako proiektua.

c) Teknikari eskudun batek egindako egiaztagiria. Bertan, industria-instalazioa aurreko idatzi-zatian adierazten den dokumentaziora egokituta dagoela eta bidezkoak diren baldintza teknikoak eta araudiko preskripzioak betetzen direla adierazi beharko da.

d) Araudi espezifiko aplikagarrian ezarritakoaren arabera, eska daitezkeen bestelako dokumentuak.

2.– Proiekturik eskatzen ez duten industria-instalazioen kasuan, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da industria-arloko lurralde-organo eskuduneari:

a) Memoria edo dokumentazio teknikoa, araudi espezifikoan halakorik ezartzen denean.

b) Enpresa instalatzaile gaituak emandako instalazio-egiaztagiria. Bertan, bidezkoak diren baldintza teknikoak eta araudiko preskripzioak betetzen direla adierazi beharko da.

c) Araudi espezifiko aplikagarrian ezarritakoaren arabera, eska daitezkeen bestelako dokumentuak.

d) Ilogailuen eta 13 m³-rainoko PGLko tangen instalaziorako, eranskinean jasotzen den abiarazte-jakinazpena aurkeztu beharko da.

3.– Araudiak ezartzen duen kasuetan, kontrol-erakunde baimendu batek emandako egiaztagiria aurkeztu beharko da.

4.– Dekretu honen ondorioetarako, honako hau hartuko da funtsezko dokumentaziotzat: proiektu edo memoria teknikoa; obra-zuzendaritzaren egiaztagiria; instalazio-egiaztagiria; kontrol-erakundearen egiaztagiria edo txostena; eta, araudi espezifikoan funtsezkotzat jotzen diren gainerako dokumentuak.

5.– Artikulu honetan adierazitako dokumentazio guztia paperean edo bitarteko telematikoen bidez aurkeztu ahal izango da, betiere bitarteko horiek ezarri badira.

12. artikulua.– Aurkeztutako dokumentazioa zuzendu eta hobetzea.

1.– Abiarazteko ezarritako dokumentazioa aurkeztu ondoren, kontrol formala egingo da, eta, hala badagokio, kontrol teknikoa, dekretu honen 6.1 artikuluan xedaturikoari jarraikiz.

2.– Aurkeztu den dokumentazioa araubidez ezarritakoa ez bada, edo baldintza teknikoak biltzen ez baditu, pertsona interesdunari eskatuko zaio, hamar eguneko epean, dokumentazioa aurkeztu, osatu edo zuzentzeko.

Lurralde-organo eskudunak, pertsona interesdunak eskatzen duenean, hasiera batean emandako epearen erdian luzatu ahal izango du epea eskatutakoa zuzentzeko.

3.– Komunikazioa ez bada zuzentzen, errekerimenduan honako hau ohartaraziko zaio komunikatzaileari: atzera egin duela kontsideratuko dela.

13. artikulua.– Administrazio-betebeharrak bete izanaren egiaztagiria.

1.– Proiektudun industria-instalazioen kasuan, aurkeztutako «Abiarazte Jakinarazpenaren» dokumentua, Administrazioak bideratu ondoren, baliagarria izango da dekretu honen 3. artikuluan abiarazteko ezartzen diren administrazio-betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko.

Ondorio horietarako, proiekturik ez duten industria-instalazioen kasuan, aurkeztutako instalazio-egiaztagiria, Administrazioak bideratu ondoren, baliagarria izango da betekizun hori egiaztatzeko.

2.– Izapidetze telematikoen kasuan, betetze-egiaztagiria aplikazio informatikotik bertatik lortu ahal izango da instalazio-ziurtagiria aurkeztu ondoren. Egiaztagiri horretan erregistro-zenbakia, aurkezpen-data eta industria-instalazioaren identifikaziorako datu garrantzitsuenak adieraziko dira.

3.– Administrazioak egindako dokumentu horien sarrera-erregistroak ez du ekarriko instalazioaren edo aurkeztutako dokumentazioaren egokitasunaren aldeko iritzia ematea.

14. artikulua.– Hornidura elektrikoa aldi baterako industria-instalazioentzat.

1.– Beren berezitasunagatik aldi baterakoak diren obrentzako edo ekitaldietarako hornidura elektrikoa lortzeko, araubidez ezarritako dokumentazioa aurkeztu beharko da enpresa banatzailean edo hornitzailean.

2.– Aldi baterako hornidura elektrikoaren iraupenak ezin izango du gainditu dagokion administrazio-lizentzian edo baimenean obrarako edo ekitaldirako finkatutako iraupena, ezta horretarako emandako luzapenen iraupena ere.

15. artikulua.– Energia-hornidura probaldian dauden industria-instalazioentzat.

1.– Industria-instalazio lotuetan probak egiteko energia-hornidura lortzeko, energiako industria-instalazioa dagokion araudian ezartzen denera egokitzen dela egiaztatzen duen egiaztagiririk tekniko enpresa banatzailean edo hornitzailean aurkeztu beharko da. Egiaztagiri hori enpresa instalatzaileak edo eskumeneko teknikari tituludunak emango du, betiere araubidez gaituak badaude.

2.– Probetarako behin-behineko hornidurak, proba horiek egiteko behar den denbora bakarrik iraun beharko du. Nolanahi ere, iraupena ezin izango da 30 egunetik gorakoa izan, enpresa banatzailearen edo hornitzailearen eta egikaritzean esku hartzen duten gainerako eragileen ardurapean. Epe hori amaitu ondoren, hornidura eten egingo da. Industria-arloko organo eskudunak iraupen bereko luzapen bat eman ahal izango du, interesdunak behar bezala arrazoitutako aparteko kasuetarako.

16. artikulua.– Behin betiko energia-hornidura.

Industria-instalazioaren pertsona titularrak, behin betiko energia-hornidura lortu ahal izateko, enpresa banatzailean edo hornitzailean instalazio-ziurtagiria aurkeztu beharko du, eta, egoki bada, zerbitzua abiarazteko jakinarazpen-agiria, eskudun organoak izapidetua.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Dekretu honetan aurreikusitako izapidetze-prozedura pertsona interesdunen aldekoagoa dela aintzat hartuta, indarrean jarri aurretik hasi diren eta amaitu ez diren espediente guztiak, egun horretatik aurrera eta indarraldia amaitu arte, dekretu honetan aurreikusitako arauen arabera izapidetuko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Lehenengoa.– Instalazio industrialak martxan jartzeko prozedura sinplifikatzen zuen Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2000ko abenduaren 26ko aurreko Agindua (2001-01-24ko EHAA, 17. zk.) indargabeturik geratzen da, eta bai Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduari buruzko arauak (RITE) eman zituen Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2008ko uztailaren 22ko Aginduko 1. artikulua 5. paragrafoko bigarren idatzi-zatia.

Bigarrena.– Indargabeturik daude dekretu honen maila berekoak edo beheragokoak izanik beronek ezarritakoarekin bat ez datozen xedapen guztiak.

2012ko abenduaren 3a, astelehena

AZKEN XEDAPENAK

Dekretu hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko urriaren 30ean.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburua,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.

2012ko abenduaren 3a, astelehena

URRIAREN 30EKO 229/2012 DEKRETUAREN ERANSKINA

INSTALAZIOA ABIARAZTEKO JAKINARAZPENA
 (INSTALAZIO MOTA)

Espediente-zk.

--

 Berria Aldatua Baja

■ Komunikazioegilea

Izena:	NAN:	Tel.:
PK eta udalerria:	Kalea:	Zk.:

■ Titularra

Izena:	IFZ:
Kalea:	Zk.:
PK eta udalerria:	Tel.: E-maila:

■ Instalazioari buruzko datuak

PK eta udalerria:	Kalea:	Zk.:
-------------------	--------	------

(Datu tekniko espezifikoak)

■ Proiektua

Ondokoak aurkezturikoa:	NAN:
Titulazioa:	
Bisa <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez	Kolegiatu zk.: Elkargoa:

■ Enpresa

Enpresa instalatzailea:	Zk.:
Enpresa mantentzailea:	Zk.:

Oharrak

(1).....

(2).....

Indarrean den araudiarekin bat etorriaz, instalazioa abiarazteko honako dokumentazioa AURKEZTEN da:

- 1.- Proiektu teknikoa.
- 2.- Obra-zuzendaritzako ziurtagiria.
- 3.- Instalazio-ziurtagiria.
- 4.-

Beste batzuk:

.....(e)n,(e)koaren(e)an.

(Sinadura eta zigilua)

ERREGISTRORAKO ESPAZIOA

(Erregistro-zk.)
(Erregistro data)